

Aezkoako kontrabandistak

E.: ba, ba, eta beraz, zer zuxun kontrabanda ibiltzen zirenak geio heen eskualde huntakoak edo, Hergarai eta Garazi, edo Aezkoan zitzun geio?

M.: oh ba, horiek e orbaitzetarrak onak zien ba, ah ba, bazen aotza re Orbaitzetan Luis, ua re, uf, kontrabandista zen, bai, bai, bai, ah ba, ta geo bazen, ez dakit, sekula ez dut niun e jakin, Iriberrri bada or kartierra edo herri ttipi bat, edo zer da ori?

E.: ba, herri bat duxu ba.

M.: herria?

E.: aski, bon, denborian aski handi izana, bana... Izana nuxu ni han ere xaharrekilan zera, mintzatzen.

M.: eh be nunbaitik ezin jakin, eta nun den, baizu, kartetan eta ez da emana.

E.: gero erakutsiko dauxut.

M.: eta beti, iriberritarrak e bazien biga, alta, gure etxolatik eta heen tokirat zazpi oren bide bazuten oinez.

E.: zoin, jakiten ahal bada?

M.: Eh?

E.: nor, jakiten ahal bada? Iriberritarrak?

M.: hek... Batto hango alkatia zen ordian.

E.: izenak ez xira oritzen?

M.: ahantziak tut, eta bertze bat hen koiñata, ua zen eta Iriberriko zaldien kasu egilia, hor Frantziako aldeat dretxoa bazuten jiteko, eh be, laatan oi bat zaldi bazien Iriberrikoak jiten zienak, eta hua zen, donc, alkate hain koiñata, oai ahatziak tut nik ixtorio oiek.

E.: eskualdunak hain seur e, ez?

M.: ah ba, ba, ba, hek eskuara iten zuten ba, nola!

E.: horiekilan untsa konprenitzen zinuten elgar?

M.: ah ba, ba, ba, ba, ba, orbaitzetarrek e gure eskuara dute, zuten, hasteko, horgoek, ba, ba.

E.: gero gaztiak españolez.

M.: ah ba, edo gaztek galdu dute, na delako Xidron seme horiek, horiek eskuara egiten dute untsa, eh!

E.: ah ba?

M.: ah ba, ba, ba.

E.: oono baduzie... Akomeatzen zizte... Baduzie harremana?

M.: nik intzun tut Xidroin seme, batto, donc, artzaiña ta kontrabandista puro, eh be, kundatzen zitien bere kontraandako ixtorioak-eta, Radio Irulegin ta denetan pastia da, eh! Ah ba, ba.

E.: ah ba, eh? Oai deia pastiak bitira gauza horiek, oai jakiten ahal bitira, ez?

M.: kundatzen aal dira, hemen e kundatzen aal dira oai.

E.: oai ba, oai ba, oai ez xu makurrik.

M.: beñ etorri zen guarda egona Mendiben, eta hementxetaat, Aatsan bazitien adixikide at, eta mezzatik landa, ta elaka ari ginen, ta nungoa nintzen, ta: “ha hire aita ezautu diat ba, ola kontraandan, ta ba, ba, ba, ta bakarretan e xekatu diat, ba!”, “ba, tronpatu re ziuzte, ba! Harek bezala beste batzuek e”, ta “nola?”, ta “ba, ola ta ola”, erraiten aal zinien, ua re erretretan zen, ta geio, ez da geio kontrabandaik, fini da oai.

E.: oai denak lagun.

M.: oui.

E.: lagun, edo bon, beden...

M.: eta hura katalanoa zen, sortzez eh... Urdia tzarra, uf, zakurra, zakurra zen.

E.: so ixu zonbait aldiz bizia nola khanbiatzen den, ta gero mezzatik atera ta denak elekan ari, lasai, eh!

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala